

AUTOBIDEA ETA EUSKARA

AUTOBIDEAK LEZO HERRI ERDALDUN IZATEKO BIDEA JARRIKO DU

Aurtengo apirilaren 19an egindako Udal Batzarrean Lezon egin nahi duten autobidea izan zen aipagai. Bertan herritar talde polita bildu ginen proiektu honen aurrean ditugun kezkak eta jarrerak azaltzeko. Eta ez nolanhiko kezkak gainera, izan ere proiektu honek Lezoren etorkizuna erabat baldintzatuko du.

Bertan zeuden PNV eta EA.ko zinegotziek itsu itsuan ezetz esan zieten herritarrek egindako proposamenei eta ez zuten beren jarrera argitzeko hitz erdirik ere egin. Itsu, mutu eta gor. Bai ote dakite zer egin nahi duen Foru Aldundiak? Baldin badakite, itsu itsuan onartzeko prest ote daude? Pentsatu ote dute, minutu erdiz bada ere, zein eragin izango dituen honek Lezorentzat? Herriari ez ote diote ezer esan behar? Ixilik egon zirenez ez ditugu galdera hauentzat dituzten erantzunak ezagutzen. Baina ixil-ixilik proiektuaren alde egin zuten ondorioak ez zaizkiela axola pentsatu beharko. Ez al zaizkie axola herritarrek dituzten kezkak? Ez al diote herriari erantzun bat zor? Badakizue esaera zaharrak zer dioten: "ixilik dagoenak bego dio".

Bego, alegia, hala bedi. Hala bedi Lezotarrek Oreretara oinez joaterik ez izatea, autorik ez duten guztiek autobusez ibili behar izatea, Altamirako pasealekua errepide bihurtzea, Lezoren bizimodua hankaz gora jartzea etxe gehiagorekin, kanpoko jende gehiagorekin, euskara gutxiagorekin...

Eta horixe da lerro hauek idaztera bultzatu nauen arrazoia. Autobidea eginez gero zer pasako da Lezon hizkuntzarekin?

Autobidea egiteak trafikoarentzat bide azkarra jartzea esan nahi du, jendea errazago (autoz) mugitzea, Donostian etxe garestiak ordaindu ezin dituzten horiek Lezora etortzea (inguru honetan ez dago beste lekurik etxe berriak egiteko eta horrek esan nahi du Lezon etxeak egiteko geroz eta presio handiagoa egongo dela), ez Lezon bizitzera lo egitera baikik, Lezo Donostiaren auzo bihurtzea, herri bizitza galtzea, hizkuntza galtzea.

Eta hau ez da beldur hutsa, arrazoi galantak ditugu hori pentsatzeko. Munduan barrena eta Euskal Herrian bertan badugu beldur honen aldeko hamaika adibide.

Zer gertatu zen Sobietar Batasuna deituriko horretan? Errusian zegoen estatu handi horren bihotza eta bere segurtasuna eta zentralismoa handitzeko urrutien zeuden errepublikekin lotzeko komunikabideak indar bereziz bultzatu zituzten, honela errusieraz mintzo ziren milaka lagun inguruko errepublika horietara eraman zuten komunikabide azkar horien bidez. Ukrainiara adibidez, edo Baltikoko herrietara eta horien bidez bertako hizkuntzaren indarra gutxitu egin zen, nabarmen gutxitu ere.

Zer gertatu da Amazonasen? Urtetan Autopista transamazonikoa egiten aritu dira jo eta ke eta orain ikusi da, autopista hau egin denetik bide horretan bizi zen hainbat kultura desagertu dela edo desagertzen ari dela. Edo Alpeetan, komunikabide berriek Ladindar herrira hainbat italiar eta alemandar eraman zuten orain urte gutxi eta gaur egun ladindar hizkuntzak lan izugarriak ditu hainbeste arrotzen artean bizirik eusten.

Ez dago, ordea, hain urrutira joan beharrik. Iparraldean horixe bera gertatu da, Frantzia iparraldeko turismoa bultzatzeko komunikabide geroz eta hobeez Ipar Euskal Herrira hainbat eta hainbat kanpotar ekarri dute eta gaur egun kosta aldean geroz eta zailagoa da euskaraz dakienik topatzea, eta alderantziz ez da zaila frantses zale amorratuak topatzea.

Adibide hobea da Euskal Pirineotako bailaretan gertatu dena. Alegia, Pirineo inguruko kulturak bailaratan antolaturik egon izan dira mende luzetan. Errekaren bidea egin du hizkuntzak eta kulturak. Baina mende honen bigarren erdialdera egin ziren bailara arteko errepideek bizitzeko eta kultura antolatzeke modu horrekin amaitu zuten eta kanpoko hizkuntzak zuzenean sartzeko bideak jarri ziren. Honela, gaur egun Zaraitzu eta Erronkari bailaratako euskaldunak desagertu dira eta guk geuk ere Valle de Salazar eta El Roncal izenez hobeto ezagutzen ditugu. Nork erakutsi dizkigu izen horiek? Euskaldunek?

Eta inork pentsa dezake, hala ere, urrutiegiko kontuekin nabilela eta hor ziria sartzea errazagoa dela. Hona hemen, orduan, adibide gertukoa eta "prexku prexkua". Donostiako Udalak urtero neurtzen du Euskararen erabilera (eta Lezokoak Lezon) Donostiako auzoetan. Historikoki Alde Zaharra izan da euskaldunenetakoa. Aurten egin dako neurketen arabera bera da erdaldunenetakoa. Eta zergatik uste duzue? Horretan dabilzanak esaten dutenez (Donostiako Udaleko teknikariek) Leitzarango Autobidea zabaldu zenetik askoz jende gehiago etortzen da asteburuan Donostiara eta horren eraginez geroz eta erdara gehiago eta euskara gutxiago entzuten da kale horietan. Zer iruditzen zaizue?

Dena den, ez dugu Donostiaraino joaten ibili beharrik. Zer gertatu da urte gutxitan Oreretan, Altzan, Herreran, Trintxerpen...? Non daude garai bateko euskaldun giroak? Urte gutxitan ikusi dugu nola haunditu diren neurri eta kontrolik gabe herri horiek, nola euskara desagertu den eta horrekin batera erdara nagusitu.

Ez gaitezen inozoak izan, autobidea (saihesbide dei iezaiozu, nahi baduzu, Martiarena jauna) ez da errepide huts bat. Bide berriek joera berriak ekartzen dituzte eta hor beti ahulena da galtzaile. Eta Lezon arrisku bera bizi dugu.

Izan gaitezen zintzoak gure buruarekin. Gure herriaren bizimodua arriskuan egon izan denean Lezotarrok hortzak estutu eta ukabilak jaso izan ditugu -gogoratu droga trafikantzaileen aurkako borrokan horixe egin genuela-. Aurrean dugun hau ere horrelako momentua da eta iritsi da hortzak estutu eta ukabilak jasotzeko ordua. Borroka hau ideologia eta diferentzia guztien gainetik dago. Arazo honetan denok gara kaltetuak, zahar eta gazte, euskaldun, euskaltzale, oinezko, baserritar, kaletar, etxekoandre, langile, denok bat egin beharrean gara.

Imanol Esnaola (AEKko militantea)